KLIMA ETA PAISAIAK

1 Irakurri esaldiak eta esan zeinek deskribatzen duten eguraldia eta zeinek klima.

a) Goi-mendiko eremuetan neguak hotz-hotzak eta luzeak dira; eta udak freskoak eta laburrak. .....

b) Atzo Iberiar penintsulako zenbait tokitan 30 ºC izan ziren. .....

c) Iberiar goi-lautadan tenperaturak muturrekoak dira (hotz-hotzak neguan eta bero-beroak udan) eta prezipitazioak urriak. .....

d) Aste honetan, Brasilgo zati batean euri barra-barra egin du. .....

e) Eremu polarretan tenperaturak oso baxuak dira urte osoan eta prezipitazio urriak eta elur motakoak. .....

2 Lotu eguraldiaren ezaugarri bakoitza bere definizioarekin

Tenperatura	• Atmosferak duen ur-lurrun kantitatea.
Haizea	• Eremu batean erortzen den euri, elur edo txingor kantitatea.
Atmosferako hezetasuna	• Atmosferaren bero-maila.
Prezipitazioak	• Hodeiez estalita dagoen zeru proportzioa.
Zeruaren egoera	• Mugitzen den airea.